

## PRENTSA-OHARRA

# Gazteluko plazako dantzaldiak, txistulari eta gaiteroekin, berriz ere, ostegunean

Musika-hitzordu tradizional honen ordutegia, abuztuan, honako hau izango da: astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara

Txistu- eta gaita-dantzaldi tradizionalak Gazteluko plazara itzuliko dira ostegunean, azken saioa joan den uztailaren 4an egin eta gero. Sanferminetako ohiko geldialdiaren ondoren, musikarekin girotutako arratsaldeak 19:00etatik 21:00etara izango dira, plazako kioskoan.

Gaitero eta txistulariek hainbat doinu joko dituzte, hala nola kalejira, pasodoble, polka eta zortzikoak, Gazteluko plazan daudenek edo bertatik igarotzen direnek entzun eta dantzatu ditzaten. Saioak astearte eta ostegunetan izango dira, irailaren 21era arte. Hilabete batetik bestera aldatuko den gauza bakarra ordutegia izango da, irailean ordu erdi aurreratuko baita: 18:30etik 20:30era.

Pasa den ekainaren 13an hasi ziren txistu- eta gaita-dantzaldiek astearte eta ostegunetako arratsaldeak girotzen dituzte, Iruñeko Udalak Iruñeko Gaiteroak elkartearekin eta Iruñeko Txistulari Taldearekin sinaturiko hitzarmenari esker.

### **DANTZALDIA, TXISTULARI ETA GAITEROEKIN. GAZTELUKO PLAZA**

---

- Abuztua: 17, 22, 24, 29 eta 31. 19:00 – 21:00
- Iraila: 5, 7, 12, 14, 19 eta 21. 18:30 – 20:30

Iruñean, 2017ko abuztuaren 16an 2017